

# Durangerriko banderak

# Banderas del Duranguesado

Jon Irazabal Agirre



*Mañariako dantzariak XX. mendeko 20. hamarkadan 1802. urteko banderarekin.*

Liburuxka hau
Mañaria eleizateko bandera zaharraren 200. urteurrena
eta bandera berriaren aurkezpena
dela eta, antolatu den
“30. ezpatadantzari egunean”
kaleratzen da.

Argitalpen hau kaleratzeko
Mañaria eleizateko udala,
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren
eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarra
laguntza eta babeza izan dugu.

# Durangerriko banderak

# Banderas del Duranguesado

Jon Irazabal Agirre

## De trapos y banderas

Según la definición del diccionario una bandera es un trozo de tela, por norma general rectangular, que sujeto por uno de sus lados a un asta, se emplea como insignia o señal. Tras esta función práctica inicial el paso del tiempo lo transforma convirtiendo la misma en un símbolo importante a la hora de aglutinar o representar a una comunidad local, comarcal o nacional.

Históricamente en nuestro entorno, en Euskal Herria se considera que el uso de las banderas tuvo su origen en el medioevo. El documento gráfico más antiguo de una bandera sea posiblemente un relieve existente en la iglesia de San Cernín de Pamplona que representa a Teobaldo I, Rey de Nafarroa, como cruzado portando una bandera con una cruz.

Estas banderas que conocemos hoy día como "banderas municipales" eran conocidas antaño como "banderas de guerra", y usadas no solo para la guerra, sino también en los actos sociales, danzas etc. que acostumbraran celebrar cada localidad. Se cree que las mismas fueron sustituyendo paulatinamente, según la administración local adquiría mas poder en detrimento de los "jauntxus" locales, a las banderas de los distintos "bandos" que en una triste época de nuestra historia, precisamente denominada de "banderizos", campearon a sus anchas también por el Duranguesado, imponiendo su administración per-

## Oihalak eta banderak

Hiztegiaren definizioaren arabera, bandera bat oihal zati bat da, ia beti errektangeluarra, alderdi baten makila bati lotuta eta intsignia edo seinale lez erabiltzen dena. Hasierako eginkizun praktiko horren ostean, denborak aurrera egin ahala bandera bat sinbolo garrantzitsu bihurtzen da, herri, eskualde edo nazio mailako elkarte bat bildu edo ordezkatzerakoan.

Historikoki Euskal Herrian banderak Erdi Aroan hasi ziren erabiltzen. Bandera bati buruzko dokumentu grafiko zaharrena Iruñako San Cernin elizan dagoen erliebe bat da. Bertan Nafarroako Errege Teobaldo I.a agertzen da, gurutzatu gisa, eskuan gurutzedun bandera daramalarik.

Bandera horiei gaur egun "udal banderak" esaten zaie, baina antzina "guda banderak" ziren; hala eta guztiz ere, ez ziren bakarrik gudarako erabiltzen, herrietan egiten ziren gizarte ospakizun, dantza eta abarretarako ere erabiltzen zireneta. Bandera horiek herri administrazioek indarra hartzen eta "jauntxoek" indarra galtzen joan ahala, apurka-apurka "bandoen" banderak ordezkatzen joan ziren. Bandoen arteko guda sasoiari banderizoen sasoia ere deitu izan zaio eta Durangaldean ere bizi izan ziren gatazka horiek, euren administra-

sonal a la colectividad. Algunos hechos como los ondeados de bandera de Bera de Bidasoa, Lesaka y otras localidades, según Julio Caro Baroja, pretenden manifestar la supremacía de la bandera y poder de la villa o colectividad, frente a los jauntxus o clanes locales.

Estos cambios sociales y políticos generan que la bandera se transforme de mero trapo en uno de los elementos principales en los ceremoniales y rituales en que participa una colectividad. Por otro es el elemento aglutinador de esa colectividad en épocas de guerra. La forma particular en que se basa la defensa del Señorío de Bizkaia, que carece de tropa fija y se estructura en base a compañías locales, en la cual estaban obligados a participar todos los vecinos, genera que la casi totalidad de las anteiglesias y villas de Bizkaia dispongan o han dispuesto, además de otros elementos guerreros, como alabarda, tambor... de su correspondiente bandera.

Las referencias a estas enseñas municipales son muy antiguas. En nuestro entorno en cuanto se dispone de documentación municipal de manera mas o menos regular, ya empiezan a despuntar pequeñas referencias a la misma, bien al consignar en los libros de cuentas reparaciones de la bandera, en los libros de actas el traspaso de la mismas junto con otros elementos simbólicos del poder de un alcalde a otro, etc. En el caso de la Villa de Durango la primera cita, que yo conozco, es de 1590, cuando el alcalde saliente entrega a su

zioa herritarrei inposatu nahian. Julio Caro Barojaren iritziz, historiako gertakari batzuk, esate baterako, Bera, Lesaka edo beste herri batzuetako bandera jasoaldiak bandera eta hiribildu edo herritarren boterearen nagusitasuna adierazi nahi zuten, jauntxo edo herriko handikien aurrean.

Aldaketa sozial eta politiko horien ondorioz, bandera zapi huts bat izatetik herritarren ospakizun eta erritualen elementu nagusienetariko bat izatera pasatu zen. Beste alde batetik, guda sasoian herritar horiek biltzen zituen elementua zen. Bizkaiko Jaurerrian defentsa oso era berezian egiten zen, ez zeukan tropa finkorik eta herri-konpainien arabera egituratzen zen. Tropa horietan auzokide guztiek parte hartu behar zuten. Horren ondorioz, Bizkaiko elizate eta hiribildu gehienetan, gerra elementuez gain (alabarda, danborra...), bandera zegoen eta oraindik ere badago.

Udal bandera horiei buruzko aipamenak antzinakoak dira. Gure inguruan, udal dokumentazioa ugaritzen doan une beretik entseinei buruzko aipamenak aurki ditzakegu: kontu liburuetan banderen konponketak jasotzen dira, akta liburuetan banderak eta alkatearen boterean adierazgarri diren beste elementu sinboliko batzuk agertzen dira alkate berria aukeratzerakoan, eta abar... Durangoko Hiri-



*Iurretako dantzariak agintariena dantzatzen. 1891.eko irailaren 29an.*

sustituto la bandera, las cajas (tambores), el sello de plata etc. Esta referencia es una constante anualmente hacia el mes de octubre, dado que los alcaldes se sustituían el 29 de septiembre de cada año. En estas anotaciones puntuales se indican algunos datos sobre la misma, en el caso de Durango por ejemplo se indica en 1591 "bandera de tafetán", en 1593 "bandera del concejo" etc. pero sin mayores concreciones.

La bandera era muy importante. No era exhibida en cualquier ocasión sino en los días denominados "días de bandera" que eran los días grandes de la vida social de ese pueblo en los cuales la misma salía en pleno para acudir a algún acto protocolario o función religiosa. Estos días sufren cambios a lo largo del tiempo. En el siglo XVII y XVIII en Durango eran nueve los días de bandera; Corpus Christi, la infraoctava, la octava, San Pedro, Santa María, Procesión del Rosario, recibimien-

bilduaren kasuan, nik dakidanez, lehenengo aipamena 1590ekoa da: alkatetza utzi zuen alkateak bere ordezkoari bandera, kutxak (danborrak), zilarrezko zigilua, eta abar... eman zizkion. Aipamen hori urtero agertzen zen urri aldera, alkateak urtero irailaren 29an ordezkatzen ziren-eta. Ohar horietan banderari buruzko datu batzuk jasotzen ziren; esate baterako, 1591n "tafetazkoa bandera", 1593an "kontzejuko bandera", eta abar... baina beste zehaztasunik gabe.

Bandera oso garrantzitsua zen. Ez zen edonolako ospakizunetan erabiltzen, "bandera egunetan" baino ez zen ateratzen-eta; herriko bizitza sozialeko egun handiak ziren eta herritar guztiak irteten ziren kalera protokolozko ekitaldi edo ospakizun erlijiosoren bat zela-eta. Horri dagokionez aldaketak izan ziren historian zehar. XVII. eta

to de la Santa Bula, San Sebastián y otra que no he podido determinar. En el siglo XIX se acuerda que también lo sea el día San José. También era exhibida los días en que el ayuntamiento o el Señorío ordenaban realizar algún alarde de armas para mostrar que la villa estaba presta para hacer frente a cualquier evento bélico.

Tal y como ya he señalado antes la bandera tenía una gran importancia social. Muestra de esta importancia es el incidente que tuvo lugar en Durango en 1639. Cuando algún enemigo acosaba el litoral de Bizkaia era costumbre que las villas y anteiglesias del interior del Señorío acudiesen a la defensa de los puertos de la misma. En el caso de Durango, Lekeitio solía ser, habitualmente, el puerto asignado a defender. En estos casos el alcalde asumía la figura de capitán de la tropa duranguesa, y uno de los síndicos procuradores la función de alférez, y este último ejercía de banderero.

En 1639, el reino de España esta en guerra contra el de Francia y los Durangueses, con el alcalde Tomas de Guezala como capitán, acuden el 17 de agosto a Lekeitio en defensa de aquel puerto. Queda como alcalde en la Villa el Doctor Juan Bautista de Olano, el cual el 27 de aquel mes recibe la orden de alistar a los hombres que aún había en Durango, y acudiese también a Lekeitio. Juan Bautista deja como alcalde a Martín Saez de Arriaga y acude a Lekeitio. Lógicamente la bandera de Durango la había llevado Tomas de

XVIII. mendeetan, Durangon, bederatzi bandera egun izaten ziren; Gorpuzti, infra-zortziurrena, zortziurrena, San Pedro, Andra Mari eguna, Errosarioaren Prozesioa, Bulda Santuaren harrera, San Sebastian eta beste bat, ezin izan dudana zehaztu. XIX. mendean San Jose eguna ere bandera egun lez izendatu zen. Beste egun batzuetan ere ateratzen zen bandera; esate baterako, udalak edo Jaurerriak, hiribildua edozein gudari aurre egiteko gauza zela erakusteko, arma alarde bat egiteko agindua ematen zuenean.

Lehen ere aipatu dudan bezala, banderak garrantzi sozial handia zeukan. Horixe bera erakusten digu behintzat 1639an Durangon gertatu zenak. Edozein areriok Bizkaiko kostaldea erasotzen zuenean Jaurerriko barrualdeko hiribildu eta elizateak kostaldeko portuak defendatzera abiatzen ziren. Horrelako gertakarien aurrean, Durangok, Lekeitio babestu behar izaten zuen. Alkatea izaten zen durangarren troparen kapitaina eta sindiko prokuradoreetako bat izaten zen alferiz, eta horrek egiten zuen banderero.

1639an, Espainiako erreinua gerran zegoen Frantziarekin. Durangarrak, Tomas Gezala alkatea kapitain zutelarik, Lekeitiora abiatu ziren abuztuaren 17an, portua defendatzera. Hiribilduan Juan Bautista Olano Doktorea geratu

Guezala con la primera expedición. Juan Bautista de Olano que capitanea la segunda expedición la hace bajo una bandera que el tenia en su casa.

En el mes de septiembre, al regreso de la defensa de Lekeitio Juan Bautista de Olano, pretende ejercer también de capitán y entrar en Durango portando su bandera y colocarla en la Casa Consistorial. El ayuntamiento indica que en Durango solo hay un capitán y que ese es el alcalde, a la sazón Tomas de Guezala, y que la bandera la lleva su alférez, que es su síndico. Que la bandera que llevó en la "segunda expedición" Juan Bautista de Olano no es la de la Villa de Durango sino una particular suya. Y si quería ponerla la pusiera en su casa. Posteriormente se le indicó a Olano en el futuro no portara banderas so pena de considerársele indigno, y

zen alkate. Abuztuaren 27an Durangon geratzen ziren gizon guztiak hartu eta Lekeitiora joateko agindua jaso zuen. Juan Baustistak Martin Saez Arriaga utzi zuen alkate eta Lekeitiora joan zen. Logikoa denez, Durangoko bandera Tomas Gezalak zeukan eramanda, lehenengo gizon-taldearekin. Juan Bautista Olanok, bigarren gizontaldearen kapitainak, etxean zeukan bandera bat eraman zuen.

Irailean, Juan Bautista Olanok, Lekeitio babestetik itzulita, kapitain gisa eta bandera eskuan zeukalarik sartu nahi izan zuen Durangon, gero Udaletxean ipintzeko. Udalak zera esan zion, Durangon bakarrik kapitain bat zegoela eta hori alkatea, hau da Tomas Gezala, zela; gainera, bandera Gezalaren



*Garaiko dantzariak udaletxe aurrean 1886. urteko banderarekin.*

fruto de ello no poder ejercer cargos públicos. Este altercado es una muestra de la importancia que se le otorgaba a la bandera y estandarte, aunque también en el fondo se vislumbra las guerras políticas de las grandes familias de la villa, que acaparando símbolos pretenden acaparar el protagonismo de la vida política local.

Los cambios sociales, la perdida de rituales, la transformación del sistema militar y sobre todo los cambios políticos del siglo XIX que impusieron la presencia de la bandera de España en los actos oficiales como muestra de la "unidad de la patria" generaron que los municipios perdiesen sus banderas o que las mismas fuesen relegadas y sustituidas por "banderas nacionales". Pero aun quedó un pequeño espacio para nuestras enseñas locales, dado que también eran usadas por los dantzaris en la ejecución de la Dantzari-dantza. Este hecho genera que donde perdura la danza perdura la bandera y que cuando se pierde la danza termina perdiéndose la bandera, como posiblemente ocurrió en la Villa de Durango al perderse la danza del Corpus Cristi, Magdalena... a lo largo del siglo XIX.

## Banderas de la Merindad de Durango

En el caso del Duranguesado hemos sido unos afortunados. El que haya sido el último reducto de la dantzari

alferizak, hau da, bere sindikoak, zeramala. Horrez gain, Juan Baustista Olanok, bigarren gizon-taldearekin zeraman bandera ez zen Durangoko Hiribilduaren bandera, berak etxean zeukana baizik. Beraz, nonbaiten ipini nahi bazuen, bere etxean ipintzea zeukala esan zioten. Geroago, aurrerantzean ez zezala banderarik eraman esan zioten Olanori, bestela duintasun gabeko pertsonatzat hartuko zela eta horren ondorioz ezin izango zukeela kargu publikorik izan. Istilu horrek bandera eta estandartea zein garrantzitsuak ziren erakusten digu eta horren azpian orduko beste arazo bat ere ikus dezakegu, hiribilduko familia handien artean gerra politikoak zeuden eta sinboloak bereganatuz, herriko bizitza politikoan nabarmendu nahi zuten.

Aldaketa sozialek, erritualak galtzeak, sistema militarraren eraldaketak eta, batez ere, XIX. mendeko aldaketa politikoek Espainiako bandera inposatu zuten ekitaldi ofizialetan "Espainiaren batasunaren" sinbolo gisa eta, horren ondorioz, udalerri askok banderak galdu edo baztertu zituen eta horien ordez "bandera nazionalak" ipini ziren. Baina txoko txiki bat geratu zen gure herrietako banderentzat, dantzariek ere erabiltzen zituzten Dantzari-dantzan eta. Horren ondorioz, dantzak iraun zuen tokietan banderak ere iraun zuen eta dantza galdu zen tokietan bandera ere galdu zen. Horixe bera gertatu

dantza, ha generado que se haya conservado ese pequeño tesoro que constituyen las banderas de Mañaria, Izurtza, Abadiño, Berriz Iurreta y Garai.

Aunque tal y como se ha indicado según muchos investigadores el origen de estas banderas lo deberíamos de hallar en las banderas de guerra medievales, lógicamente las que hoy día perduran no son contemporáneas a dicho origen sino el fruto de una cadena de reparaciones, nuevas ejecuciones etc. de las originales.

## Mañaria

Conserva la bandera más antigua, fechada en 1802, que ha llegado a nuestros días. En 1986, y tras el estudio de esa bandera, muy deteriorada, por parte de Mikel Lizarza, se logró recuperar el diseño de la misma y se ejecutó una nueva que utiliza el grupo de danzas de esta anteiglesia. Este año del 2002 el ayuntamiento de Mañaria tras haber asumido como enseña de Mañaria dicha bandera, ha ejecutado una nueva bandera para su uso por parte de la corporación municipal. La bandera vieja de 1802 hoy día se exhibe en una vitrina sita en el salón de plenos del ayuntamiento

La bandera presenta un entorno compuesto de cuadrados de color beige, rosa y granate que de manera alternativa rodea un gran cuadrado central que e su lado anverso presenta diversas letras

zen Durangoko Hiribilduan, XIX. mendean Gorpuzti, Madalena... eta abarreko dantzak galdu zirenean.

## Durangoko Merinaldeko banderak

Durango aldean zorte ona izan dugu. Dantzari-dantza mantendu denez, banderak ere mantendu egin dira, esate baterako, Mañaria, Izurtza, Abadiño, Berriz, Iurreta eta Garain.

Lehen aipatu dugunez, historialari askoren aburuz banderen jatorria Erdi Aroko guda banderetan dagoen arren, gaur egun ditugunak ez dira ordukoak, hainbat aldaketa izan dituzte.

## Mañaria

Mañarikoa da gaur egun dugun banderarik zaharrena, 1802koa. 1986an, eta Mikel Lizarzak bandera hori aztertu eta gero, bere diseinua berreskuratu zen eta, lehengoa nahiko egoera txarrean zegoenez, beste bat egin zen. Elizateko dantza taldeak erabiltzen du. 2002. urtean Mañariko udalak bandera hori onartu du herriko entseina lez eta beste bandera bat egin du udal korporazioak erabil dezan. Gaur egun, 1802ko bandera, bitrina batean da-

unas de gran tamaño como MA así como otras de menores tamaño como la A y la T o tau. Estos símbolos que se presentan acompañados de corazones, flores... tendrían una significado de anagrama mariano. En el lado del reverso presenta en este centro varios rombos y círculos de ignorado significado.

## Garai

Conserva, también muy deteriorada, la bandera que confeccionaron en 1886 las monjas de San Francisco de Durango por orden del alcalde Blas Aresti. Esta bandera encargada, según la factura que presenta al consistorio Maria de San Francisco, abadesa del citado convento de San Francisco, con motivo de "las fiestas del vascuence" de Durango, en las que los dantzaris de Garai ganaron el concurso de dantzari-dantza, costó 866 reales según la factura de las religiosas y 216 pesetas con sesenta y dos reales según el abono del ayuntamiento de Garai.

En 1952 se confeccionó una nueva bandera que es la que usan hoy día tanto los dantzaris como la corporación en los actos oficiales o folklóricos. Esta bandera fue obsequio de la familia Zubiaurre a los dantzaris de Garai a los que tantas veces, tanto Ramón como Valentín, los plasmaron en sus lienzos. El ayuntamiento también dispone de un pendón municipal con los mismos colores y un diseño similar al de la bandera también ejecutada en 1952.

go ikusgai udaleko osoko bilkuren aretoan.

Banderak lauki beix, arrosa eta granatez osotutako ingurua dauka eta lauki zentral handi bat inguratzen dute elkarren segidan; horren aurrealdean letra batzuk dauzka, batzuk tamaina handikoak, MA eta beste batzuk tamaina txikiagokoak A eta T edo tau. Sinbolo horiek bihotz, lore eta abarrekin azaltzen dira eta Andre Mariari buruzko anagrama adierazten dute. Atzealdean, erdian, erronbo eta zirkulu batzuk ditu eta ez dakigu zer esan nahi duten.

## Garai

Blas Aresti alkatearen aginduz 1886an Durangoko San Franciscoko mojek egin zuten bandera mantentzen du, oso egoera txarrean bada ere. Aipatu komentuko abadesak, San Franciscoko Mariak, udalari aurkeztu zion ordain-agiriaren arabera, bandera hori Durangoko "euskararen jaiak" zirela-eta agindu zen (jai horietan Garaiko dantzariek dantzari-dantza lehiaketa irabazi zuten); 866 erreal izan zen mojen fakturaren arabera eta 216 pezeta eta hirurogeita bi erreal Garaiko udalaren ordainketaren arabera.

1952an beste bandera bat egin zen eta horixe da gaur egun dantzariek eta korporazioak erabiltzen du-



*Iurretako dantzariak Montoiko udaletxe ostean XX. mendeko 20.hamarkadan 1911. urteko banderarekin.*

En la década de los años 60 y 70 del siglo XX numerosos grupos de danzas adoptaron en su repertorio la dantzari dantza, y para la ejecución del agintariena optaron por confeccionar copias de la bandera de Garai. Este hecho ha generado que en el mundo de las danzas haya un indeterminado numero de banderas de Garai que son usados habitualmente en festejos y otros eventos folkloricos.

La bandera de Garai se compone de diversos cuadrados formados por ocho triángulos, tres blancos, tres morados y dos verdes que se sitúan de manera alternativa. En su centro presenta un adorno vegetal y la inscripción "Anteiglesia de Garay 1952"

## Iurreta

Conserva hoy día la bandera confeccionada en 1911. Esta bandera carece hoy día del escudo de Iurreta que tena ekitaldi ofizial edo folklorikoetan. Bandera hori Zubiaurre familiak oparitu zien Garaiko dantzariei, Ramon zein Valentinek hainbat aldiz irudikatu dituztenak. Udalak zutoihal bat ere badauka 1952an egindako banderaren kolore berdinekin eta antzerako diseinuarekin.

XX. mendeko 60 eta 70eko hamarkadan dantza talde asko dantzari-dantza dantzatzen hasi zen eta agintariena egiteko Garaiko banderaren kopiak egin zituzten. Horren ondorioz, dantza munduan hainbat Garaiko bandera daude, normalean ospakizunetan eta beste ekitaldi folkloriko batzuetan erabiltzen direnak.

Garaiko banderak zortzi triangeluz osatutako hainbat lauki dauzka, triangeluak hiru zuriak dira, hiru moreak eta beste biak berdeak eta elkarren segidan kokatuta daude. Erdian landare adornu bat eta "*Anteiglesia de Garay 1952*" inskripzioa dauzka.

para la misma había bordado Ángela Unamunzaga. En la década de los años 50 y a iniciativa de Blanca de Alzola, 1ª Marquesa de Iurreta, se hizo una bandera nueva. En esta bandera fue insertado el escudo de la bandera de 1911. La confección de esta nueva enseña supuso la perdida de muchos de sus colores. Hacia el año 1976/77 tras el estudio de la de 1911 se ejecutó una nueva bajo la dirección de Mikel Lizarza, recuperándose los tonos originales a la cual nuevamente se le insertó el escudo de 1911. Esta bandera fue sufragada por las Cofradías de Iurreta

Durante años estas banderas, fruto de la historia reciente de Iurreta, han sido conservadas por el grupo de danzas de Iurreta hasta que recientemente fueron depositados en la Casa Consistorial. En el año 1995 el ayuntamiento ha confeccionado una bandera para el uso institucional de la misma. En esta última bandera se bordó el año 1990 como recuerdo del año en que la anteiglesia de Iurreta se desanexionó de la Villa de Durango. Con posterioridad a esta bandera institucional se ha hecho otra para el uso de los dantzaris con la pretensión de retirar del uso todas la anteriores y así frenar el deterioro que el baile de la Dantzari-dantza estaba generando en el escudo bordado de 1911.

La bandera la configuran cuadrados alternos de color gránate, amarillo, rosa pálido y beige. En su centro por el lado anverso presenta el escudo de Iurreta rodeado por una estrella de ocho

## Iurreta

1911n egindako bandera mantentzen da. Gaur egun bandera horrek ez darama Angela Unamunzagak bertan josteko egin zuen Iurretako armarria. 50eko hamarkadan eta Blanca Alzola, Iurretako lehenengo markesaren ekimen bati esker, bandera berria egin zen. Bandera horretan josi zen 1911ko banderaren armarria. Entseina berria egitean banderaren kolore asko galdu egin zen. 1976/77. urtean, 1911. urteko banderaren azterlan bat egin eta gero, beste bat egin zen Mikel Lizarzaren zuzendaritzapean eta jatorrizko koloreak berreskuratu ziren eta horri ere 1911ko armarria josi zitzaion. Bandera berri hau Iurretako Kofradiak ordaindu zuten

Iurretako azken historiaren emaitza diren bandera horiek, Iurretako dantza-taldeak mantendu ditu urteetan; orain gutxi, banderok Udaletxera eraman ziren. 1995ean udalak bandera bat egin zuen korporazioak erabil zezan. Azken bandera honi 1990. urtea bordatu zitzaion, Iurretako elizatea Durangoko Hiribildutik desanexionatu zen urtearen oroimenez. Gerora, korporazioak erabiltzeko egin zen bandera horrez gain, beste bat egin zen dantzariek erabil zezaten, beste guztiak gorde ahal izateko eta horrela Dantzari-dantza dantzatzean 1911n bordatutako armarria ez alperrik galtzeko.

puntas, y en el reverso la citada estrella en cuyo centro ostenta el año de confección de cada una de las banderas.

En 1977, conjuntamente a la bandera que confecciona el grupo de danzas de Iurreta, el grupo de danzas Beti-Jai Alai de Basurto (Bilbao) confeccionó otra copia de la bandera de dicha anteiglesia para su uso cuando interpretaran la dantzari-dantza.

## Abadiño

Poseía una bandera realizada en 1896, que fue robada hacia el año 1975/76. En 1977, y con la suerte de que en el palacio de Galíndez sito en el propio Abadiño se conservara una pequeña copia de dicha bandera que en su centro ostentaba un tamboril permitió poder confeccionar una nueva, recuperándose así nuevamente la enseña municipal.

La bandera esta compuesta por cuadrados configurados por cuatro triángulos de color verde oscuro, rojo, amarillo y blanco. En su centro en un cuadrado blanco, presenta bordado la inscripción "Abadiño 1977. urtea". En la bandera de 1896 su centro no era cuadrado sino circular y adornado con motivos vegetales. En su interior, formando circulo la inscripción"La noble anteiglesia de Abadiano" y en el centro de esta inscripción el texto "año de 1896"

Bandera elkarren segidako lauki granate, hori, arrosa argi eta beixez osatuta dago. Erdian, aurrealdean, Iurretako armarria dauka, zortzi puntako izar batez inguraturik, atzealdean aipatu izarra eta erdian bandera bakoitza zein urtetan egin zen.

1977an, Iurretako dantza taldeak egin zuen banderarekin batera, Basurtuko (Bilbo) Beti-Jai dantza-taldeak elizate horretako banderaren kopia bat egin zuen, dantzari-dantza dantzatzen zutenean ateratzeko.

## Abadiño

1896. urtean egindako bandera zuen, baina 1975/76. urtean ostu egin zuten. 1977. urtean bandera berria egin zen eta berriro berreskuratu zen udal entseina, Abadiñon dagoen Galindez jauretxean bandera horren kopia txiki bat zegoeneta (erdian danbolin bat dauka).

Bandera lau triangelu berde ilun, gorri, hori eta zuriz eratutako laukiz osatuta dago. Erdian, lauki zuri batean, "Abadiño 1977. urtea" inskripzioa dauka bordatuta. 1896ko banderan, erdialdea ez zen laukia, zirkularra baizik eta landare adornuak zituen. Barruan, zirkulu bat eginez "*La noble anteiglesia de Abadiano*" inskripzioa zeukan eta erdian "*año de 1896*" testua.



*Berrizko dantzariak Durangon, Magdalenan, XVIII. mendeko banderarekin.*

## Berriz

Existió una bandera del siglo XVIII, según José María de Odiaga en sus escritos del año 1700, que desapareció en 1937. Una hipótesis es que la bandera constituyó el "trofeo de guerra" de algún militar en aquella guerra.

En 1952y a semejanza de la de Iurreta fue recuperada la bandera a iniciativa de María Teresa de Aznar y González de Salazar, marquesa de Berriz, para los dantzaris de Berriz y es cuando se sustituyeron los símbolos de San Pedro que presentaba la bandera del siglo XVIII, por diversos elementos de la dantzari-dantza en clara referencia al uso folklórico que se le otorgaba.

En 1994 el ayuntamiento ejecutó una nueva bandera que fue confeccionada por la monjas de Forua y que es utilizada habitualmente como la ante-

## Berriz

XVIII. mendeko bandera egon zen, Jose Maria Odiagak bere idatzietan 1700. urtekoa egindako zela dio. Bandera hori 1937. urtean desagertu zen. Hipotesi baten arabera, bandera guda hartako militarren baten "guda trofeoa" izan zen.

1952. urtean eta Iurretakoaren antzera, bandera Maria Teresa Aznar eta Gonzalez Salazar, Berrizeko markesaren ekimen batez berreskuratu zen, Berrizeko dantzarientzat. Urte horretan banderak XVIII. mendetik zeuzkan San Pedroren sinboloak kendu eta dantzari-dantzaren hainbat elementu gehitu ziren, dantzariek ateratzeko zen-eta.

1994. urtean Udalak bandera berria egin zuen; Foruko monjek

rior por el grupo de Danzas de San Lorenzo. Con posterioridad lamentablemente se ha extraviado la bandera de 1952.

En 1969 surgió en Berriz otro grupo de danzas, Iremiñe, y este grupo recuperó la bandera que la Marquesa de Berriz había donado en 1956 al grupo de danzas que había creado en Andikona el sacerdote Félix Gallastegi. En 1985 en el convento de monjas de Derio confeccionaron una bandera de Berriz propia para el grupo Iremiñe

A semejanza de la de Abadiño se configura en torno a cuadrados formados por cuatro triángulos de diversos colores, concretamente blanco, verde, amarillo, azul oscuro, azul claro, rojo y rosa. En el centro por su lado anverso, en un cuadrado blanco, se nos presenta un león que a la derecha muestra el escudo de Bizkaia y a la izquierda el de Berriz con la inscripción "Anteiglesia de Berriz" en su parte superior. En su reverso presenta en este espacio central hoy día un txistu, un tambor, un atabal, una espada y una makila así como dos txilines y rodeando estos elementos la inscripción "Berrizko Ezpata Dantzariak".

Por lo que observamos en las fotografías que se conservan la bandera antigua presentaba las llaves de San Pedro, patrón de Berriz. Desconozco si también presentaba el escudo de Berriz dado que el mismo es adoptado como escudo municipal en 1928 y esta bandera se supone que, en origen por lo menos, era del siglo XVIII.

egin zuten eta aurrekoa bezala, normalean San Lorenzoko dantzataldeak erabiltzen du. Geroago, zoritxarrez 1952ko bandera galdu egin zen.

1969an Berrizen beste dantzatalde bat sortu zen, Iremiñe, eta talde horrek berreskuratu egin zuen Felix Gallastegi abadeak Andikonan sortu zuen dantza-taldeari 1956.ean Berrizeko Markesak eman zion bandera. 1985. urtean Derioko mojen komentuan Berrizeko bandera bat egin zen Iremiñe dantza-taldearentzat.

Abadiñokoaren antzera, hainbat koloretako (zuria, berdea, horia, urdin iluna, urdin argia, gorria eta arrosa) lau triangeluz osatutako laukiz eginda dago. Erdian, aurrealdean, lauki zuri batean lehoi bat dago eta bere eskumatara Bizkaiko armarria dauka eta ezkerretara Berrizkoa eta goian "*Anteiglesia de Berriz*" inskripzioa. Atzealdean, erdian, txistua, danborra, atabala, ezpata eta makila eta bi txilin eta horiek denak inguratzen "Berrizko Ezpata Dantzariak" inskripzioa.

Argazki batzutan ikus ahal izan dugunez, lehengo banderak Berrizko Patroi San Pedroren giltzak zituen. Ez dakigu Berrizko armarria eramango ote zuen, 1928an hartu zelako udal armarri lez eta bandera hori, jatorrian behintzat, XVIII. mendekoa zelako.



*Izurtzako dantzariak eleizateko udalarekin gerra garaian desagertutako banderarekin.*

Al igual que en el caso de Garai la de Berriz es otra de las banderas que han copiado muchos grupos folklóricos para utilizarla en el baile de la Dantzari Dantza.

## Izurtza

También perdió en esta fatídica fecha de 1937 la bandera de su anteiglesia. Solamente se conserva de la misma algunas fotografías con los dantzaris de Izurtza. En 1967 el grupo de danzas de Izurtza confeccionó una bandera nueva sin tener en cuenta para nada el diseño de la anterior. Esta bandera estaba configurada por cuadrados rojos, azules, blanco y rosa. Dicho grupo pretendió inaugurar dicha bandera en las fiestas de Santa Águeda. Eran tiempos del franquismo... y el alcalde de Izurtza impidió la inauguración de dicha bandera que fue usada por primera vez días después en la actuación que el grupo de bailes de Izurtza hizo en Arrate

Garain gertatu bezala, Berrizko bandera ere dantza-talde askok kopiatu du, dantzari-dantzan erabiltzeko.

## Izurtza

Herri honetan ere 1937. urtean galdu zen elizateko bandera. Argazki batzuk baino ez dauzkagu, Izurtzako dantzariekin. 1967an Izurtzako dantza taldeak bandera berria egin zuen, aurrekoaren diseinua kontuan izan gabe. Bandera hori lauki gorri, urdin, zuri eta arrosaz osatuta zegoen. Dantza-taldeak bandera Santa Agedako jaietan estreinatu nahi izan zuen. Frankismo garaia zen.... eta Izurtzako alkateak ez zuen utzi bandera estreinatzen; bandera egun batzuk geroago erabili zen lehenengo aldiz, Izurtzako taldeak Arraten (Eibar) dantzan egin eta gero. 1985. urtean bandera berriz disei-

(Eibar). Hacia 1985 se hizo un intento de rediseñar la bandera teniendo en cuanta los escasos testimonios gráficos y los recuerdos de las personas mayores de Izurtza pero dichos trabajos no concluyeron. En 1994 la corporación de Izurtza asumió como bandera municipal la diseñada en 1967 y confeccionó una nueva para su uso institucional, a la cual ha insertado el escudo de la anteiglesia.

## Banderas perdidas

La propia Merindad de Durango, como institución plena que fue durante muchos siglos, también tuvo su bandera propia según se desprende al leer el acta del 24 de septiembre de 1614 cuando se acuerda que la bandera y la caja (tambor) de la Merindad se guarde en la Casa de Astola. Curiosamente es el único dato que poseemos referente a la bandera de la Merindad y dado que no ha perdurado la misma desconocemos totalmente cualquier dato sobre la hechura etc. de la misma. La verdad es que tras la supresión de los Fueros por parte del gobierno central en 1876, y la situación de abandono en que quedo la Casa Auditorio de Astola, se produjo la pérdida de gran parte del archivo así como de la mayor parte de los objetos institucionales de la misma.

Otra de las banderas que se han perdido en el transcurrir del tiempo es la correspondiente a la Villa de Durango. Aunque los primeros datos que po-

natzeko ahalegina egin zen, argazkietan eta Izurtzako nagusi batzuen oroitzapenetan oinarriturik, baina lan hori ez zen bukatu. 1994. urtean, Izurtzako korporazioak 1967. urtean diseinatutakoa hartu zuen udal bandera lez eta bandera berria egin zuen korporazioak erabiltzeko. Bandera horri elizateko armarria josi zaio.

## Galdutako banderak

Durangoko Merinaldeak ere bere bandera izan zuen 1614ko irailaren 24ko aktan irakur daitekeenez; egun horretan Merinaldeko bandera eta kutxa (danborra) Astola Etxean gordetzeko erabakia hartu zen. Bitxia den arren, Merinaldeko banderari buruzko datu bakarra da eta ez denez mantendu ez daukagu bere itxura eta gainerako ezaugarriei buruzko inolako daturik. Gobernu zentralak 1876. urtean Foruak kendu eta Astolako Auditorio Etxea abandonatuta utzi eta gero, artxiboaren zati handi bat eta erakundearen gauza gehienak galdu egin ziren.

Denborak aurrera egin ahala galdu den beste bandera bat Durangoko Hiribilduari dagokiona da. Berari buruzko lehenengo datuak XVI. mendekoak diren arren, udal artxibotik atera ditugun datuak ez daude osoturik. Bandera horren gora-behera askori buruzko aipa-



*Abadiñoko dantzariak 1896. urteko banderarekin.*

seemos de su existencia se remontan a finales del siglo XVI los datos que hemos sacado del archivo municipal son fragmentarios. Conocemos numerosas referencias sobre los avatares de dicha bandera. En los libros de cuentas y actas de la Villa de Durango se nos indica multitud de traspasos de la bandera entre alcaldes, reparaciones, nuevas confecciones etc. Sabemos que era de “tafetán” (1624), “de colores” (1644), “de seda” (1702-1703), “de raso y seda” (1718-1719), también conocemos algunos de sus colores, por ejemplo al ejecutarse una bandera nueva en 1794 se citan ”Dámasco carmesí, raso liso blanco, raso azul...” Cuando se confecciona otra las monjas del convento de San Antonio, en 1879, se indica “damasco color carmesí fino y otras sedas flojas de trozal y de coser”. Pero tal y como hemos indicado, por ahora, con lo que se conoce no es posible reconstruir la bandera. Lo que sí conocemos es que la bandera ostentaba por un lado el escudo de Durango y por otro las

menak daude. Durangoko hiribilduko kontu eta akta liburuetan alkate batek besteari bandera nola ematen dion, konponketak, bandera berriak eta abarrei buruzko aipamenak agertzen zaizkigu. “Tafetazkoa” (1624), “koloretakoa” (1644), “zetazkoa” (1702-1703), “satin eta zetazkoa” (1718-1719) zela dakigu, kolore batzuk ere badakigu zein ziren, esate baterako 1794. urtean bandera berria egin zenean, “damasko gorri bizia, satin lisoa, zuria, satin urdina... ” aipatu zen. 1879. urtean, beste bat egin zenean San Antonio komentuko mojek “damasko gorri bizi fina eta trozal eta josteko beste zeta flojo batzuk” aipatu zituzten. Baina lehen aipatu dugun bezala, gaur egun dakigunaz ezin da bandera berreskuratu. Gauza bat dakigu, banderak alderdi batean Durangoko armarria zeramala eta bestean erregearen armak, hau da, Espainiako armarria.

armas del rey, es decir el escudo de España.

¿Cuándo desapareció la bandera de la villa? A finales del siglo XIX aún perdura la bandera. La última que conocemos se cose en 1879. En 1886 al celebrarse las Fiestas Euskaras se indica como el ayuntamiento "a las 8 y siguiendo antiquísima usanza de aquella villa el ayuntamiento de gala y con bandera, recorrió las calles con nutrido é incesante disparo de cohetes y marrones" ¿Cuando se pierde? Presumiblemente a inicios del siglo XX. Cuando en 1986 pregunté por la bandera a gente mayor no di con ninguno que la recordara, seguro que alguno habrá o habría que lo conociera, pero la suerte no me acompañó.

## Epílogo

A modo de epílogo de este trabajo me gustaría exponer una remota posibilidad de que en algún lugar perdure una de nuestras banderas de antaño, posiblemente la bandera de la Villa de Durango. En agosto de 1794, cuando las tropas de la confederación francesa invaden Gipuzkoa y se aproximan a Bizkaia se produce la batalla de Ermua. El batallón de Durango acude a la defensa de Ermua, es de pensar que con la bandera de la villa que habían confeccionado en el mes de febrero de aquel mismo año. La batalla es terrible. La villa de Ermua arde en su totalidad. Son muchos los muertos y fusilados.

Noiz desagertu zen hiribilduko bandera? XIX. mendearen azken aldera oraindik ere bazegoen. Guk dakigunez, azkena 1879. urtean josi zen. 1886. urtean Euskararen Jaiak ospatu zirenean zera esan zen udalari buruz hitz egiterakoan: "*a las 8 y siguiendo antiquísima usanza de aquella villa el ayuntamiento de gala y con bandera, recorrió las calles con nutrido é incesante disparo de cohetes y marrones*". Noiz galdu zen? Antza denez XX. mendean. 1986. urtean nagusiei banderari buruz galdegin nienean, inork ez zuen gogoratzen, herritarren batek zerbait gogoratuko zuen baina, zoritxarrez, nik ez nuen aurkitu.

## Epilogoa

Lan honen epilogo gisa, nire gogoeta bat azaldu nahi nuke eta hauxe da, gure antzinako banderetako bat, hau da, Durangoko Hiribilduko bandera nonbaiten egon daitekeela. 1794. urteko abuztuan Frantziako konfederazioaren tropek Gipuzkoa inbaditu zutenean eta Bizkaira hurbildu zirenean, Ermuko bataila izan zen. Durangoko batailoia Ermua babestera abiatu zen eta urte bereko otsailean egin zen hiribilduko bandera hartuta abiatuko zirela uste dugu. Borroka oso gogorra izan zen. Ermua erabat erre zen. Hildako eta fusilatu asko

Tras la batalla ambos contendientes redactan sus informes sobre lo acontecido. Por un lado se conoce el redactado por Joaquín de Larrinaga con destino a la Diputación de Bizkaia. Por el lado francés son redactados tres informes con destino al general Adriano Jeannot Moncey. En uno de ellos, el que recoge lo realizado por el 5º batallón de Gers indica:

*"La bandera distintiva de los bandoleros fue tomada por el ciudadano Ducré sargento mayor del 5º batallón de granaderos de Gers, es el él que la tiene y no tardará en ofrecértela"*

Moncey, después de una brillante carrera militar fue nombrado en 1833 director del Hotel Nacional de los Inválidos de Paris. En este gran edificio que es iglesia, mausoleo de Napoleón, museo militar etc. entre otras cosas custodian en "la iglesia de los soldados" y otras dependencias banderas tomadas al enemigo a lo largo de la historia.

¿Durango perdió su bandera en Ermua? ¿Podría estar en los Inválidos de Paris o en alguna otra colección de trofeos militares? No deja de ser una hipótesis, pero sería interesante profundizar en la misma, porque aunque remota quizás sea la única posibilidad de recuperar la bandera de esa Villa.

*Jon Irazabal Agirre*
*2002-10-16*

egon zen. Borrokaren ostean, bi bandoek gertatuari buruzko txostenak egin zituzten. Alde batetik, Joaquin Larrinagak Bizkaiko Aldundiarentzat idatzi zuena ezagutzen dugu. Bando frantsesari dagokionez, hiru txosten idatzi ziren Adriano Jeannot Moncey jeneralarentzat. Horietako batean, Gers-eko 5. batailoiak egindakoak zera dio:

*"Bandoleroek zeramaten bandera Ducré-k, Gers-eko granadarien 5. batailoiko sarjentu nagusiak, hartu zuen; berak dauka eta berehala emango dizu"*

Karrera militar bikaina egin eta gero, Moncey Pariseko Inbalidoen Hotel Nazionalaren zuzendari izendatu zuten 1833. urtean. Eliza, Napoleonen mausoleo, museo militar... den eraikin handi horretan, "soldatuen elizan" eta beste areto batzuetan historian zehar etsaiei kendutako banderak gordetzen dira.

Durangok Ermuan galdu ote zuen bere bandera? Pariseko Inbalidoetan edo guda trofeoen bildumaren batean ote dago? Hipotesi bat baino ez da, baina interesgarria izango litzateke sakontzea, Hiribilduko bandera berreskuratzeko aukera bakarra izan daiteke-eta.

*Jon Irazabal Agirre*
*2002-10-16*


2002



## Garai




## Abadiño



# Iurreta





# Berriz







1559-1995



*Garaiko agintariak eleizateko txuzo eta banderarekin.*



*Agintariena Garain Santa Ana egunean.*

MAÑARIA ELIZATEKO UDALA

Geregiaga Elkartea

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA